

LANTOKI PARTEKATUA

BAIGORRI

ERABILPEN BALDINTZA OROKORRAK

Lantoki partekatua, zer da?

Lantoki partekatua telelanari eta ikasketei baizik bideratua ez den gela bat da. Herriko Etxean dago, Baigorriko Turismo Bulegoaren ondoan.

Erabiltzaileak

Gela erabili dezakete langile eta ikasleek, aldiz, erreserba egitean, lehenek lehentasuna ukanen dute bigarrenetikiko.

Instalazioak

Lantoki partekatuan langela/ikasgela bat eta sukalde ttipi bat daude.

1) Langela/ikasgela

Gaur egun, lau bulego daude. Bulego bakoitzak dauka: F gisako bi prisak, RJ45 prisak bat, USB prisak bat eta USB-C prisak bat.

Gelan internet sarea dago. Konexioa WiFi ala Ethernet harien bidez egin daiteke. Hariak hornituak dira eta hauekin batera Ethernet/USB-C egokigailuak, Ethernet sarrerarik ez luketen ordenagailuentzat.

2) Sukaldea

Sukaldean kafe-makina eta ur berotzeko makina bat daude. Janaria berotzeko manikik ez dago, ezta lekuan berean jateko lekurik ere. Herriak ura, kafea eta dutea edateko material guziaz hornitzen du. Gastu hauek erabilpen tarifetan kondatuak dira (so egin beherago).

Erabilpen modalitateak

Gelaren erabilpena 4 ala 5 egunez asteen, denboran mugatua izanen da eta hitzarmen berezi baten bidez baldintzatua.

Erabiltzaileek lekua zaindu behar dute eta lan baldintza hoberenak segurtatu behar dituzte beste erabiltzaileentzat. Ezin dezakete telefonoko elkarrizketarik ukan, beste pertsona bat baldin badago gelan. Bestalde, beste gela bat erreserbatzen ahal dute deien, bideokonferentzien, bilkuren edo elkarrizketen egiteko, gela libre den heinean.

Debekatuta dago langela/ikasgelan eta sukaldean apairuen egitea.

Abonatuak gelan edonoiz sartzeko gako bat ukanen dute eskura. Aldiz, noiztenka etortzen direnek Herriko Etxeko orduak errespetatu behar dituzte: astelehenetik ostiralera, goizeko 8:30-12:30 eta arratsaldeko 2:00-6:00 artean.

Tarifak

Gelaren erabilpena urririk dago ikasleentzat.

Lanean ari direnentzat bi tarifa mota daude: noiztenkako erabilpena eta abonamendua.

1) Noiztenkako erabilpena

Lekua noiztenka eta beharren arabera erreserbatzen da. Edozein erabilpen, gutienez egun-erdi bat bezala fakturatua izanen da.

- Egun erdia: 5 €
- Eguna: 8 €

Hilabete bukaeran, Herriko Etxeak erabiltzaile bakoitzaren erabilpen egunen kopurua kalkulatzeko du.

2) Abonamendua

Izena eman eta, **hilabeteko abonamendu** bat eska daiteke, asteen erabili nahi den egun kopuruaren arabera.

| | Hilabeteko tarifa | | |
|---------------------------------|-------------------|--------------------|-------------|
| | Ikasle tarifa | Tarifa murriztua * | Tarifa osoa |
| Egun-erdi 1 asteka | urririk | 7 € | 15 € |
| Egun 1 edo 2 egun-erdi asteka | urririk | 10 € | 25 € |
| 2 egun edo 4 egun-erdi asteka | urririk | 15 € | 45 € |
| 3 egun edo 6 egun-erdi asteka | urririk | 20 € | 60 € |
| 4 egun edo 8 egun-erdi asteka** | urririk | 25 € | 70 € |
| 5 egun** | urririk | 30 € | 80 € |

(*) Baldintza batzuen arabera, elkarte edo beste entitateentzat Erabilpen Hitzarmen Orokor bat izenpetzeko ahala, galdea eginez gero. Tarifa murriztua proposatuko zaie tesia kontratu pean daudenei.

(**) Gelaren erabilpena 4 ala 5 egunez astean, denboran mugatua izanen da eta hitzarmen berezi baten bidez baldintzatua.

Abonatu batek noiztenka egun-erdi edo egun bat gehitu nahi balu, erabilpenaren prezioa hilabeteko abonamenduari gehitua izanen zaio:

- Egun-erdia: 3 €
- Eguna: 5 €

Izen-emate modalitateak

Izen-ematea egin aitzin, erabiltzaile bakoitzak entsegu egun batez goza dezake. Horretarako, bere izena eman behar du Herriko Etxeko harreran edo Herriko Animatzaileari (06.43.62.23.22 / baigorriko.iz@gmail.com).

Ondotik, gela erabiltzen segitzeko, Herriko Etxean izena ematea ezinbestekoa da. Izen-emate orria bete beharko da. Hilabeteko 20a aitzin izena eman behar da ondoko hilabetean lantoki partekatua erabili ahal izateko. Adibidez, apirilaren 15ean ematen badut izena eta Herriko Etxeak onartu badu, ene lekua erreserbatzen ahalko dut maiatzaren 1etik goiti. Apirilaren 25ean ematen badut izena, ene izen-ematea maiatzaren 21etik goiti baizik ez da landua izanen eta, onartua banaiz, lantoki partekatuan sartzen ahalko naiz ekainaren 1etik goiti.

Erreserbatze modalitateak

Izena ematerakoan, abonatuak haien erabilpen egunak zehaztu behar dituzte. Noiztenka aldaketa batzuk egiten ahalko dira, galdegin egunak libre badira eta lehentasuna ukan gabe.

Noiztenkako erreserbak erabilpen egunaren bezperan egin behar dira berantetik. Erreserbatze plataforma bat eraikuntza fasean dago Herriko Etxeko web gunean. Anartean, egutegi partekatu baterako sarbidea eskainiko da, izen-ematea onartu eta gero.

Izena noiztenka ematen duen pertsona oro Herriko Etxeko harreratik pasa behar da, bere presentzia markatzeko gisan.

Erreserba gabe gela erabiltzen duen orok egun oso bat ordaindu beharko du.

Herriko Etxean izena eman ez duen orori tokia uztea galdeginen zaio.

Ordainketa modalitateak

Bi ordainketa mota eskaintzen dira:

- 1) Hilabete hastapenean Herriko Etxeak aitzineko hilabeteko erabilpenaren faktura bat ematen dio erabiltzaileari. Erabiltzaileak faktura Zerga Etxean ordaindu behar du.
- 2) Erabiltzaileak bere bankuko kontuan atxikipen automatikoa bat egitea galdegiten ahal dio Herriko Etxeari.

LANTOKI PARTEKATUA

BAIGORRI

IZEN-EMATE INPRIMAKIA

Asurantzia ziurtagiri bat (erantzukizun zibila) hornitu ezazu Izen-Emate Inprimakiarekin batera.

Erabiltzailearen datu pertsonalak

| | |
|----------------------|-----------------------|
| Deitura: | Telefono zenbakia: |
| Izena: | Helbide elektronikoa: |
| Helbidea: | |
| Posta-kodea, herria: | |

Harpideduna

| | | | |
|---|-------------------------------|--|--|
| <input type="radio"/> Enpresa / Estatusa: | <input type="radio"/> Elkarte | <input type="radio"/> Langile partikularra | <input type="radio"/> Ikaslea (baliozko ikasle txartelaren fotokopia bat hornitu ezazu) |
| Izena: | | | |
| Siret zenbakia: | | | |
| Egoitza sozialaren helbidea: | | | |

Erabilpena eta ordainketa modalitatea

| <input type="radio"/> Erregularra (abonamendua), desiratutako erabilpen egunak marka izkizu: | <input type="radio"/> Noiztenkakoa | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|------------------------------------|------------|------------|------------|----------|------------|------------|-------|--|--|--|--|--|--|-------------|--|--|--|--|--|--|--|
| <table border="1"><thead><tr><th></th><th>Astelehena</th><th>Asteartea</th><th>Asteazkena</th><th>Osteguna</th><th>Ostirala</th><th>Ebiakoitza</th></tr></thead><tbody><tr><td>Goiza</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr><tr><td>Arratsaldea</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr></tbody></table> | | Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala | Ebiakoitza | Goiza | | | | | | | Arratsaldea | | | | | | | |
| | Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala | Ebiakoitza | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Goiza | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Arratsaldea | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| <input type="radio"/> Atxikipen automatikoa (Bankuko Nortasun Agiri bat hornitu ezazu) | <input type="radio"/> Faktura | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

Lantoki partekatuko erabiltzaileek behereko barne araudia eta izen-emate inprimakiarekin hornitutako *Erabilpenerako Baldintza Orokorrak* errespetatu beharko dituzte.

Tarifak, erreserbatze eta ordainketa modalitateak *Erabilpenerako Baldintza Orokorretan* zehaztuak dira.

Erabiltzailea ondoko puntuetan engaiatzen da:

- Noiztenkako erabilpeneko tarifa hautatu badu, Herriko Etxeko ordutegia errespetatzea,
- Gela garbi uztea (zikin unti eta baxerak barne)
- Gela libre uztea garbiketarako ostiral arrastiriko 6:00etatik goiti,
- Ez apairurik egitea lekuan berean,
- Isiltasunean lan egitea,
- Sekretu profesionala errespetatzen duen lan joera ukatea,
- Material berezirik gabeko aktibitatea ukatea,
- Beste erabiltzaile bat baldin badago gelan, telefonoan ez hitz egitea,
- Materiala berreskuratzea lana eta gero (galduko den materialarekiko Herriko Etxeak ez du ardurarik hartuko),
- Lantoki partekatu materiala baizik ez erabiltzea (ezinbestekoan izan ezik, Herriko Etxeko beste materialik ez da prestatua/emana izanen),
- Edozein lokala edo materialaren degradazioaren ardura hartzea eta bere asurantzari dei egitea zorigaiztoentzat,
- Norberaren erreserbatze egun eta orenen aldaketa erraztea, erabiltzaile berri batzuen harrera ahalbidetzen badu,
- Bixente Hirigarairengana jo galdera, arazo, disfuntzionamendu edo desadostasunik balego (arazo larrienak Herriko Kontseiluan aipatuak izanen dira).

Harremana

Bixente HIRIGARAI LABÉGUERIE
Baigorriko herriko animatzaile
06.43.62.23.22
baigorriko.iz@gmail.com

Enpresa ala elkartearen
zigilu eta izenpedura

Erabiltzailearen
izenpedura